

AZTERKETA BULEGOKO BULETINA

AURKIBIDEA:

1. EDOZER ESKRUPULURIK GABEKO FINANTZ ENTITATE BATZUEN ALDE
2. EUSKO JAURLARITZA ETA NAFARROAKO GOBERNUAK ONTZAT EMAN DITUZTE MURRIZKETA GEHIAGO DAKARTEN RAJOYREN DEFIZIT PUBLIKOAREN MUGAK
3. CEN, UGT ETA CCOO ERAKUNDEEK ONTZAT JOTZEN DUTE LAN ERREFORMA ELKARRIZKETA SOZIALAREN BESTE AKORDIO BATEAN
4. HEGO EUSKAL HERRIKO HEZKUNTZA PUBLIKOKO IRAKASLETZAN MURRIZKETAK
5. PROPOSAMENA: ABIADURA HANDIKO TRENA GELDITU!

1. EDOZER ESKRUPULURIK GABEKO FINANTZ ENTITATE BATZUEN ALDE

Finantza erakundeak protagonismo handia izaten ari dira azken urteetan. Egungo krisialdiaren sortzaile izanik, jasotzen dituzten laguntza, beraien zuzendarien milioi askotako soldata eta pentsio, edo eta burutzen dituzten desjabetzeei buruz berriak, adibidez, egunero agertzen dira.

27en Europako Batasuneko estatu ezberdinetan finantza erakundeei emaniko laguntzek izandako eraginaren inguruko informazioa argitaratu du Eurostatek. Nahiz eta estatuetariko zortzik ez duten informaziorik eman, eta finantza erakundeei zuzenduriko diru laguntza batzuk defizit bezala kontabilizatu ez, azterketa honek ondorio interesgarriak erakusten dizkigu.

Informazioa eman zuten 19 estatuetatik, 13 izan ziren **finantza erakundeei kapitala transferitzearren bere defizita handitu zutenak**, eta hauen artean, nola ez, espainiar Estatuak dago. Finantza erakundeei laguntza BPGd-aren %3,6koa izan zen Estatuan 2012 ekitaldian, 27-EBkoaren oso gainetik kokatzen den zenbatekoa, BPGd-aren %0,4koak izan baitziren laguntza hauek han. Espainiar Estatuak Batasuneko batezbestekoaren esfortzu berdina egin izan balu finantza sektorea laguntzeko, ziztaturikoak baino 33.500 milioi euro gutxiago injektatu izan beharko litzuke.

Gainontzeko estatuei dagokionez, 27-EB osoan, Greziak (BPGd-aren %4) bakarrik burutu zuen Estatuak baino esfortzu handiagoa finantza sektorea laguntzeko. Beste estatuak bere BPGd-aren %1a baino gutxiago bideratu zuten honetara.

Estatuko erakundeek jasotako zenbateko zehatzak aztertzeraz pasatuz, 2012 ekitaldian, preferenteen konbertsio eta kapital harpidetza artean Banco Financiero y de Ahorros, S.A.-Bankiak, 18.302 milioi euro jaso zituela ikus dezakegu, Catalunya Bankek 9.408, Novagaliciak 5.135, eta Banco de

Valenciak 5.498. Hala, erakunde hauek jasotako zenbateko osoa 38.343 milioi eurotako izan zen. 2008tik jasotako kopuruak batuz, espainiar Estatuko finantza erakundeek jasotako zenbatekoa 45.092 milioi eurotako litzake.

Defizitean kontabilizatzen diren kapital transferentziei buruz Eurostatek emaniko informazioaz gain, badaude kontabilitate honetan jasotzen ez diren beste diru laguntza batzuk ere. Hala, adibidez, Asociación Española de Bancak (AEB) emaniko informazioaren arabera, finantza sektoreak 75.352 milioiko diru publikoa jaso izango zuen espainiar Estatuan.

Elkarte honen arabera, finantza sektoreak 38.741 **enplegu galdu** ditu 2007ko abendutik 2012ko abendura, sektore horretako enpleguaren %14a hain zuzen. 32.260 lanposturekin, Aurrezki Kutxak dira enplegu gehien suntsitu dutenak, bere enpleguaren %24arekin, eta beraz, 4 enpleguko 1 hondatu dute. 5.790 lanposturekin, bankuek bere enpleguaren %5a galdu dute epealdi honetan, eta kooperatibek, 691 enplegurekin, %3a.

Ondorioa argia da: finantza erakundeak guztion poltsikoetatik ateratako diru publikoaz mesedetzen dira, ikusi den bezala, bere langileak alde batera uzterakoan inolako ardurarik erakutsi gabe, ezta, adibidez, desjabetzeak burutu eta jendea kalean uzterakoan ere.

2. EUSKO JAURLARITZA ETA NAFARROAKO GOBERNUAK ONTZAT EMAN DITUZTE MURRIZKETA GEHIAGO DAKARTEN RAJOYREN DEFIZIT PUBLIKOAREN MUGAK

Euskal Herriko instituzio guztiek (Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernu eta Foru Aldundi guztiak) aplikatzen dituzten aurrekontu politikak onartu egiten dituzte Madrilen sektore publiko osorako ezartzen diren defizit publikoaren mugak.

Espainiar Estatu mailan, Rajoyren Gobernuak eta Erkidego Autonomoek osatzen dute Zerga eta Finantza Politiken Kontseilua. Kontseilu honek adosten du urtero Erkidegoek bete behar duten defizit publikoaren helburua edo muga. Eta ekainaren 27ko bileran 2013rako BPGaren %1,3ko defizit helburu berria finkatu zuen.

Gaur egungo marko juridikoaren arabera (Estatutua, Nafarroako erregimena eta Aurrekontu Egonkortasunaren Legea), Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak muga hauek ez aplikatzeko eskuduntza dute. Hala ere, praktikan, biek onartu dituzte naturaltasun osoz. Eusko Jaurlaritza, Patxi Lopez Lehendakaritza heldu zenetik. Iñigo Urkulluk berdin jarraitzen du (horrela egin zuen 2013rako aurkeztu zuen Aurrekontu Proiektuan. Proiektu hau atzera bota zuen Legebiltzarrak).

Ekainaren 27ko aipaturiko bileran, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak bi modutan onartu zuten defizitaren muga. Batetik, bileran parte hartuz (bileran egotea kritikagarria da. Seguruenik, eskumena politikoki defendatzeko bilera horretan ez egotea koherenteagoa da). Bestetik, bozketan abstentzioa emanaz. Proposamena, Rajoyren gobernu eta PPK kontrolatzen dituen Erkidego Autonomoen aldeko botoekin onartu zen. Katalunia, Andaluzia, Asturias eta Kanariar Uharteetako gobernuak kontrako botoa eman zuten.

ELAren iritziz, Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernuaren jarrera hau oso larria da, beraien aurrekontuetan muga izugarriak ezartzen dituzten erabakiak legitimatzen baitituzte. Datozen urteetarako Erkidegoen defizitaren mugak, Kontseilu horrek uztailaren bukaeran egingo duen bileran onartuko direla aurreratu du Espainiako Gobernuak. Hots, Rajoyren proposamena defizit hau 2014an BPGd-aren %1ekoa, 2015ean %0,7koa eta 2016an %0,2koa izatea da.

Kontseiluak muga hauek onartuko dituela begibistakoa da. Hego Euskal Herriko instituzioei muga hauek ez onartzea exijitzen diegu. Bestela, aurrekontuetan murrizketa handiak onartu behar izango dituzte. Eta murrizketen ondorioz, langabezia eta pobrezia altuagoak eta babes sozial baxuagoa dira eta izango dira. Murrizketa politika horrekin bat egiten bada soilik uler daiteke Kontseilu horretan parte hartzea. Ez dezatela esan erabakiak inposatzen zaizkienik!

3. CEN, UGT ETA CCOO ERAKUNDEEK ONTZAT JOTZEN DUTE LAN ERREFORMA ELKARRIZKETA SOZIALAREN BESTE AKORDIO BATEAN

Hilaren hasieran Nafarroako CEN patronalak eta UGT eta CCOO sindikatuek sektorearteko akordio bat iragarri zuten, aurretik zeuzkaten elkarrizketa soziala oinarritzen den zenbait akordioaren "berrikuspenean" datzana. Elkarrizketa mota honek urte asko daramatza martxan Nafarroan. Zehazki erakunde hauek "berritu" nahi duten akordio nagusia 1995 urtekoa da. Akordio horrek gai ezberdinak jorratzen zituen. Eta honen atzetik etorri ziren Nafarroako Lan Epaitegia sortzeko akordioa, lau Enplegu Plan eta azkenaren luzapena, Nafarroako Enplegu Zerbitzua sortzeko akordioa, eta abar. 1995ko akordioa izan da sindikatu abertzaleak partaidetza instituzionaletik kanpo uzteko aitzakia, eta batez ere ELA.

Aurkeztu duten testua irakurtzerakoan, harridura sortzen duen lehen gauza elkarrizketa sozialaz mintzatzeko darabilten diskurtso triunfalista da. Dirudienez elkarrizketa sozialak, Nafarroako Gobernuarekin batera lan politiken kudeaketaren arduraduna denak, arrakasta besterik ez du izan. Eta egungo egoera "munduko ekonomia astintzen duen izugarritzko krisiaren eta gobernuak hartutako zenbait neurriren" ondorio besterik ez da. Ezin liteke esan autokritika egiten dutenik.

Akordioak biltzen duena berriz, ez da ezer berria.

Betikoa da, bake soziala politika publikoen kudeaketan partaidetza handiagoaren truke.

Bake soziala agerian geratzen da "lan erlazioan eta erlazio sozialean ezartzen ari den gatazken inertzia hautsi" behar dela diotenean, edo "enpresetan beharrezkoa dela kapitala eta lanaren arteko gatazka gainditzea" esaten dutenean. Hau guztia "lan erlazioen marko berri bat ezartzen duten azken urteotan onartutako lan erlazioak" ontzat ematen dituzten bitartean. Hau da, azken lan erreformak borrokatu beharrean, hauetara moldatu behar dela.

Politika publikoen kudeaketan partaidetza handiagoa "Elkarrizketa eta Hitzarmen Sozialerako Mahai Iraunkorra" eskatzen dutenean, "ordezkaritza handiena duten enpresari erakundeen eta sindikatuen partaidetza instituzionalerako maila goreneko markotzat hartuko dena".

Akordioan biltzen den gainerakoak ez du ezertara behartzen, nahiz eta gai ezberdinak jorratu. Garrantzitsuenak aipatzearren:

- **Negoiazio kolektiboa:** lehenik eta behin, estatuan sinatutako akordio guztiak bere gain hartzen dituzte, hala nola AENC, ultraaktibitatearen inguruko akordioa, eta abar. Akordio hauetan erosmen ahalmena galtzea adosten da, enpresak nahi duen heinean malgutasuna handitzea, eta negoziazio kolektiboa legeak utzi bezala geratzen da. Honen gainera oraindik akordioan "sektoreko hitzarmenak balorean jarri" behar direla diote, "enpresek zenbait momentutan izan ditzaketan behar ezberdinak aparte utzita (AENC-k bildutako ezohiko soluzioak kontuan hartuta), aldeek sektoreko hitzarmenak lehenetsi beharko lituzkete". Hau da, sektoreko hitzarmenak eduki behar direla non enpresak "zenbait

momentu jakinetan" eraitsi daitezkeen.

- **Ultraaktibitatea:** gai honetan hitzartu dutena "negoziatzen ari diren aldeei iraungitako hitzarmenetako baldintzak bertan behera ez gelditzeko neurriak adosteko bultzatzea" da. Era berean "hitzarmenetan ezarritako baldintzak enpresetan eraisteko prozedurak adostu beharko lirakekeela" esaten dute.
- **Lanbide heziketa eta Moderna Plana:** akordioa, hau bera sinatu duten erakundeek eskaintzen duten lanbide heziketaren eta Moderna Planaren propaganda hutsa egiteko erabiltzen da.

Azken finean, akordio honek ez du inolako berrikuntzarik suposatzen, ezta inolako hobekuntzarik ere langileontzat. Ez dago inaplikazio klausularik, ez ultraaktibitate iraunkorra ezartzekorik eta lan erreforma ontzat ematen da... Hau da, Patronala ez da ezertara behartzen.

Elkarrizketa soziala eta CEN, UGT eta CCOO erakundeek Nafarroako Gobernuarekin batera egiten duten lan politiken kudeaketa enpleguaren eta prekaritatearen egoera larriaren erantzuleak dira ere. Era honetako akordioak orain arteko egoerari eusteko helburuarekin egiten dira, akordioak "berritu" denak orain arte bezala segi dezan.

Politika hauek eta elkarrizketa sozialak berak, egungo egoerara eraman gaituzte, eta beraz, ez gaituzte hortik aterako. Patronala oso eroso dago lan erreformek ematen dion guztiarekin, eta hau ez aplikatzeko modu bakarra antolatzea eta enpresetatik hasita borrokatzea da.

Eskubide sozialak eta lan eskubideak erasotzen ari diren bitartean, kapitalak aberastasunaren banaketan jauzi ikaragarria egiten ari denean

langabezia, pobrezia eta bazterketa sozialaren kontura, ez da morala honelako akordioak sinatzen dituzten sindikatuak egotea. Langileen defentsarako beraien funtzioak alde batera utzi dituztelako. Beste behin ere. 2013 uztailan gainera.

4. HEGO EUSKAL HERRIKO HEZKUNTZA PUBLIKOKO IRAKASLETZAN MURRIZKETAK

Gizarte babesean Europako Batasunarekiko gastuan dugun defizita ez da kontu berria. Ezta hezkuntzako gastu publikoan defizita ere, eta hala erakusten dute azken datuek.

Nazioarte mailako hezkuntzako gastu publikoari buruz Eurostatek argitaraturiko informazioak, 2011 urtean, sorturiko 100 euro bakoitzeko, batezbeste 5,3 zuzendu zirela hezkuntzara 27-EBn erakusten du. Hego Euskal Herria, baina, zifra honetatik oso urruti dago. Zehazki, EAEn BPGd-aren % 4,1a zuzendu zen ekitaldi horretan, eta %3,2a Nafarroan. Batezbeste 27-EBko esfortzu berdina eginez, **EAEn 795,2 milioi euro gehiago gastatu beharko liritekeela** esan nahi du honek, eta **421,3 milioi euro Nafarroan**.

HEZKUNTZAN GASTU PUBLIKOA . 2011, 27-EB, _ EAE ETA NAFARROA

	BPGd %	DIFERENTZIA (Milioi €)
27-EB	5,3	
EAE	4,1	795,2
NAFARROA	3,2	421,3

Iturriak: Eurostat, Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurlaritza

UNIBERTSITATEZ KANPOKO HEZKUNTZA PUBLIKOKO IRAKASLEAK ETA MATRIKULATURIKO IKASLEAK. HEGO EUSKAL HERRIA, 2011-12/2012-13

	Irakasleak			Ikasleak		
	2011-12	2012-13 (a)	Bilakaera	2012-13 (a)	2011-12	Bilakaera
NAFARROA	7.402	7.089	-313	67.357	66.622	-735
EAE	21.048	20.102	-946	182.995	179.267	-3.728
HEH	28.450	27.191	-1.259	250.352	245.889	-4.463

Iturria: Ministerio de Educación

Egoera ez da hobetzen ari, egungo krisialdiaren aitzakiarekin, Hego Euskal Herriko hezkuntza ereduaren baliabideak urritzen ari diren etengabeko murrizketak burutzen ari baitira Hegoaldeko gobernuek.

Honela, Ministerio de Educación-ek argitaraturiko informazioak, unibertsitatez kanpoko hezkuntza publikoak 250.352 irakasle izan dituela Hego Euskal Herrian matrikulaturik 2012-23 ikastaroan erakusten du, aurreko kurtsoan baino 4.463 gehiago. Baina hazkunde honek ez du irakasle gehiago ekarri. Alderantziz, 2012-23 ikastaroan 27.191 irakasle zeuden, aurreko ikastaroan baino 1.259 gutxiago. Hau da, **ikasleak %1,8a hazi dira azken ikasturtean, baina irakasle kopurua %4,4a murriztu da.**

Honela, unibertsitatez kanpoko hezkuntza publikoak 9,2 ikasle izan ditu irakasleko 2012-13 ikastaroan (9,5 Nafarroan eta 9,1 Euskal Autonomi Erkidegoan), aurreko ikasturtean baino 0,6 irakasle gehiago irakasleko.

Lan kargan hazkundera ematen da beraz, azken urteetako soldata jaitsierarekin batera, irakasleen lan baldintzak okertzen dituen, eta gainera, gure **hezkuntza ereduaren kalitatea pobretzen duena.**

Guzti honetatik atera daitekeen beste ondorio bat hau da: agintean ditugunek gezurrak esaten dituztela. Komunikabideen aurrean, adibidez, hezkuntzan ez direla murrizketak burutzen ari esaten ari dira behin eta berriz. Datu ofizialek hori ez dela horrela erakusten dute.

5. PROPOSAMENA: ABIADURA HANDIKO TRENA GELDITU!

Ekaina bukaeran Trenbide lasterraren Burdeos-Hendaia zatia 2030 urterarte atzeratzeko asmoa aurreratu zuen Gobernu Frantsesak. Orain hilabete batzuk, Portugaleko Gobernuak ere, era honetako proiektuak bertan behera uzteko erabakia hartu zuen. Nahiz eta Espainiar Gobernuak hain argia izan ez, aurrekontu arazoak direla eta, antzeko azpiegituren eraikuntza eta hasitako enbriak geldiarazi egin du. Beraz kolokan geratzen da Hego Euskal Herriko trenbide lasterraren konexioa Europarekin eta Espainiar Estatutarekin. Gainera, hain ezaguna egin den ardatz atlantikoa ere eginezin bihurtzen da.

Hala ere, Eusko Jurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak aurrera egiten dute azpiegiturarekin, justifikatuz. Ana Oregik, Eusko Jurlaritzako sailburuaren hitzetan “ lanak pentsatu baino beranduago bukatuko dira, orografiatik eta merkantziak garraiatzeko duen tren izango delako, AHTak ez du abiadura handia lortuko, baina bestelako zerbitzuak eskeinitu ditu” (oraindik ezagutzen ez ditugunak). Gobernuarentzat AHTa “lehentasun osoko” proiektua da, hiru hiriburuen arteko komunikazioa hobetu eta Europak izango duen trenbide sarearen zabalerara egokitua egongo delako alegia. Bestalde, nafar zatiari dagokionez, 70 kilometro dira eta EAEarekin loturarik izango ez duela dagoeneko zehaztu da.

ELA urteak daramatza azpiegitura hau salatzen. Euskal Herriari AHTak sentsurik ez duela datu guzti

hauek berresten dute: ez die gizartearen mugikortasun beharrei erantzuten, abiadura handiaren funtsa distantzi luzea duten puntuak lotzean datzalako EHan noizeanbehin egiten direnak eta ez egunerokotasunean, azpiegiturak izango duen gastu ekonomikoa guztiz neurrigabekoa da (Euskal Gobernuaren eta Nafar Gobernuaren aurrekontuetan, nahiz eta parlamentuetan atzera bota izan aplikatzen ari diren horietan, 2013rako 350,7 milioi euro eta 68,5 milio bideratzen ziren hurrenez hurren) gizarte zerbitzuak aldentzea suposatzen du, AHTek ez du merkantziarik garraiatzen, ez du enplegurik sortzen, etab. luze bat.

Orain gutxi, Herri-kontuen Euskal Epaitegiak argitaratu duen 2011 urteko ikuskatze txostenak, 2011an AHTren adjudikazio kontratu guztietan irregulartasunak egon zirela ezagutzera eman du. Epaitegiaren arabera, adjudikazioak, 348,7 milioi eurotako baliaoarekin, balioko iritzietan oinarriturik gabe egiten ziren lanak aurrera ematen behar zituzten enpresak erabakitzean, ez baitziren ez merkeenak ezta hobetoen baloratuak ere. AHTa Alferreko Azpiegitura Handiak deiturikoen beste adibide bat baino ez da, hau da bere eraikuntzan onura ateratu dutenen mesedetara egindakoa.

Horregatik guztiatik eta egungo abagune ekonomikoa ere kontutan izanda, Eusko Jurlaritzari eta Nafar Gobernuari AHTaren eraikuntza eta aurrekontuetan bideratzen diren partida guztiak bertan behera utzi, eta gizarteak dituen mugikortasun beharrei erantzuteko, jada existitzen diren azpiegituren hobetzea exijitzen diegu.